



Agindua, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailburuak, Euskadiko Erlijioen Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzen duena.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2025eko uztailaren 22ko Aginduaren bidez, Euskadiko Erlijioen Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agindu zen.

Proiektu hau izapidetzeko ardura Aniztasuna, Bizikidetzak eta Belaunaldiarteko Elkartasun Zuzendaritzari eman zitzaion.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldeztu aurreko onarpena beharko dute, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Azaldutakoagatik, landutako proiektuaren testua ikusita, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – , Euskadiko Erlijioen Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektuaren testua aldeztu aurretik onartzea.

Bigarrena. – Dekretu-proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorriz, Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburua.

NEREA MELGOSA VEGA